

2024/2025 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazten da **otsailaren 7tik 23ra** (biak barne) izango dela **2024-2025 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea**. Matrikulatzeko hitzordua hartu behar da honako [galdetegia](#) betez. [Informazio gehiago...](#)



Xake-topaketa

Usurbilgo Udalak, aurten ere, otsailerako XAKE-TOPAKETA prestatu du, hobeto esanda, TOPAKETA pare antolatu du.

Gaur, otsailak 16, 17:00etan, LH 1-2-3ko haurrentzako saioa izango da.

Otsailaren 23an, 17:00etan, LH 4tik gorako haur eta gaztetxoentzako saioa izango da (izen-ematea oso ugaria bada, bi talde egingo ditugu).

Izen-ematea jada zabalik dago Sutegi Liburutegian.



Treba Gurasoen tailerra

Usurbilgo gaztelekuak, Udaletxearekin batera, Treba Gurasoen tailerra antolatu du. Bertan, haur eta nerabeen emozioen inguruan hitzaldi bat izango da.

Eguna: Otsailak 22

Ordua: 17:30etan

Lekua: Potxoenean

[Informazio gehiago...](#)



HAUR-HEZKUNTZA

Bilera pedagogikoak

Otsailaren 27an eta 28an, HHko familiei zuzendutako bilera pedagogikoak egingo ditugu.

HH3: Otsailak 27an, 16:45ean.

HH4: Otsailak 27an, 16:45ean.

HH5: Otsailak 28an, 16:45ean.

Oharrak: Zaintza zerbitzua egongo da.

Bilerak, haurren geletan egingo ditugu.



LEHEN HEZKUNTZA

LHko material-kobrantza

2023/24 ikasturteko **LHko eskola-materiala** gaur kobratuko dela jakinarazten da, hileko kuotarekin batera.

Erreziboaren zenbatekoa **35,00 €** izango da.

